

BESTELAKO XEDAPENAK

KULTURA ETA HIZKUNTZA POLITIKA SAILA

4551

EBAZPENA, 2022ko urriaren 10ekoa, Kulturako sailburuordearena, zeinaren bidez argitara ematen baita Euskal Kultura-Ondare Immateriala babestearen arlora bideratutako lanak egiteko 2022-2023 aldirako dirulaguntza emateko Balorazio Batzordearen osaera.

Kultura eta Hizkuntza Politikako sailburuaren 2022ko uztailaren 22ko Agindua ikusi da, Euskal Kultura-Ondare Immateriala babestearen arlora bideratutako lanak egiteko 2022-2023ko ekitaldirako dirulaguntzen oinarri arautzaileak ezarri eta deialdia egiten duena.

Agindu horren 14. artikuluan xedatzen denez, Balorazio Batzordearen osaera Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratuko da.

Ondorioz, honako hau

EBAZTEN DUT:

Lehenengoa.– Balorazio Batzordearen osaera argitaratzea. Honako hauek osatuko dute batzorde hori:

Batzordeburua:

– Mikel Aizpuru Murua, Kultura Ondarearen zuzendaria.

Batzordekideak:

– Abдона Gil Abad, Euskal Kultura Ondarearen Zentroaren arduraduna.

– Jose Maria Uriarte Gonzalez, Kultura Ondarearen Zuzendaritzako teknikaria.

– M.^a Teresa Izquierdo Marculeta, Kultura Ondarearen zuzendaritzako teknikaria.

Bigarrena.– Balorazio Batzordeko idazkaria izendatzea, hitzarekin baina botorik gabe, Garazi Gomez Alegria, Kultura Ondarearen Zuzendaritzako aholkulari juridikoa.

Hirugarrena.– Ebazpen hau, Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitara dadila agintzea, guztiek horren berri izan dezaten.

Vitoria-Gasteiz, 2022ko urriaren 10a.

Kulturako sailburuordea,
ANDONI ITURBE AMOREBIETA.